

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### 656

*EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 17koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariarena eta Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baitira 2021eko ekitaldian emandako dirulaguntzen onuradunen zerrendak, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresariak zuzendutako laguntzei buruzko azaroaren 15eko 233/2011 dekretuan ezarritako esparruaren barruan («Elkarteak» Programa).*

Azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuak («Elkarteak» Programa) honako helburu hau du: Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresariak zuzendutako laguntzak emateko erregimena arautzea.

Azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuko («Elkarteak» Programa) 9. artikuluko 4. paragrafoan honako hau jasotzen da: aurreikusitako laguntzen gaineko ebazpena banan-banan jakinaraztea eragotzi gabe, dagokion arloko zuzendariaren ebazpen baten bidez EHAAn argitaratuko dira dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak eta onuradunak.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko martxoaren 31ko Aginduen bitartez iragarri zen EAEko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresariak zuzendutako laguntzak 2021ean emateko deialdia, azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuaren («Elkarteak» Programa) esparruaren barruan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Ogasunaren Antolarauen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49. artikuluan honako hau ezartzen da: dirulaguntzen onuradunak argitara emateko betebeharra.

Ondorioz, honako hau

#### EBAZTEN DUGU:

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko martxoaren 31ko Aginduan oinarriturik, 2021eko ekitaldian zehar emandako dirulaguntzen onuradunen zerrenda argitara ematea, jende oro jakinaren gainean izan dadin. 2021eko martxoaren 31ko agindu horren bitartez iragarri zen 2021ean EAEko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako elkarte eta federazio profesional eta enpresariak zuzendutako laguntzak emateko deialdia, azaroaren 15eko 233/2011 Dekretuaren («Elkarteak» Programa) esparruaren barruan. Aipatutako zerrenda ebazpen honen eranskinean jasotzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 17a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,  
JORGE GARBISU BUESA.

Arrantza eta Akuikulturako zuzendaria,  
LEANDRO AZCUE MUGICA.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,  
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

2022ko otsailaren 9a, asteazkena

## ERANSKINA

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEN SAILBURUAREN  
2021EKO MARTXOAREN 31KO AGINDUAREN BITARTEZ EGINDAKO DEIALDIAREN BARRUAN  
(«ELKARTEAK» PROGRAMA) 2021EKO EKITALDIAN EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

## ELKARTE ETA FEDERAZIO PROFESIONAL ETA ENPRESARIALAK

## NEKAZARITZAREN SEKTorea

Sozietatearen izena	Laguntzaren zenbatekoa
Federación Asoc. Criadores Ganado Txaroles - Etxafe	1.911,00
Asociación de Apicultores de Bizkaia	2.400,00
Biolur Gipuzkoa	5.960,25
EGAE	7.695,00
Gipuzkoako Lore eta Barazkigileen Elkartea - Gilbe	11.200,00
Asociación Independiente de Remolacheros Alaveses - AIRA	21.516,93
Euskal Ahuntz Esne Elkartea - Ahuntzai	24.518,99
Bihoel	8.700,00
Azpigarri	51.750,00
Asociación Criadores Caballo Deporte Euskadi	34.851,96
Larsabi	1.350,00
Asociación de Mujeres y Familias del Ámbito Rural – Land@ XXI	11.550,22
Euskal Oiloaren Hazleen Federazioa	3.300,00

## ELIKADURAREN SEKTorea

Sozietatearen izena	Laguntzaren zenbatekoa
Asoc. Fabricantes Conservas y Salazones de Pescados de Bizkaia	6.282,31
Asociación de Fabricantes de Piensos Compuestos - Epea	20.017,28
Asoc. Panaderías del Territorio Histórico de Alava - Aspanar	8.628,48
Asoc. Provincial de Fabricantes y Expendedores de Pan de Bizkaia	21.163,60
Gremio de Pastelería de Bizkaia	12.953,47
Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa - Konfekoop	30.950,00

## ARRANTZAREN SEKTorea

Sozietatearen izena	Laguntzaren zenbatekoa
ANABAC	48.167,59
ACPO	26.727,75
Federación Cofradías Pescadores Bizkaia	59.450,00
Federación Cofradías Pescadores Gipuzkoa	25.650,00
OPPAO	25.950,00
GARELA	3.240,00